

Luis Liz Marzáni Lilly Fundazioaren 2021eko Ikerketa Biomediko Preklinikoaren Saria emango diote gaur

CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendari eta Ikerbasque irakasleak nanozientziaren eta nanomedikuntzaren arloan egindako ikerketengatik jasoko du saria, Pedro Duque Zientzia eta Berrikuntzako ministroa buru izango duen ekitaldi batean

Biomedikuntza garatzen laguntzen duten ikerketa-ibilbide zientifiko nabarmenak aintzatesten dituzte Lilly Fundazioaren sariek

Donostian, 2021eko ekainaren 14an. [Lilly Fundazioaren](#) 2021eko Ikerketa Biomedikoaren Saria emango diote gaur Luis Liz Marzán [CIC biomaGUNE](#) Biomaterialen alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroko zientzia-zuzendari, [Ikerbasque](#) irakasle eta Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko ([CIBER-BBN](#)) ikertzaile nagusiari. Saria ikerketa preklinikoaren kategoriari dagokio. Liz Marzánekin batera, Carlos Simón Vallés irakasleak ikerketa klinikoaren kategoriako saria jasoko du —INCLIVAk Ugalketa Medikuntzako Ikerketa Taldearen koordinatzailea, Valentziako Unibertsitateko Obstetrizia eta Ginekologiako katedraduna eta Igenomixen sortzailea da—. Biomedikuntza garatzen laguntzen duten ikerketa-ibilbide zientifiko nabarmenak aitortzen dituzte sari hauek, eta gaur arratsaldean izango da sari-banaketa, Pedro Duque Zientzia eta Berrikuntza ministroa buru izango duen ekitaldi batean.

Lilly Fundazioaren zuzendari José Antonio Sacristanek azaldu duenez, “nanomedikuntzan eta ugalketa-medikuntzan jarduten diren bi zientzialari hauen ikerketek balio eta izen handia eman diete osasun-zientziei”, eta adierazi du saritzen diren ibilbideen maila gorenari berari eta epaimahaia osatzen duten kideen ospe zientifikoari eta irizpide zorrotzei esker bihurtu direla erreferente sari hauek komunitate zientifikoaren barnean.

Lilly Fundazioak Liz Marzánen nanozientziaren eta nanomedikuntzaren arloko ikerketak nabarmentzen ditu: “Liz Marzán irakaslearen ikerketa aitzindarien helburua da kimikatik eta nanozientziatik arazo biomediko konplexuei irtenbidea ematea, eta, hala, onura sozial handia eragitea”. Propietate plasmonikoak dituzten nanopartikula metalikoak (urrea, zilarra) eta gaixotasunak detektatzeko, diagnostikatzeko eta terapiarako dituzten aplikazioak izan ditu ardatz haren ibilbide zientifikoak. “Kimikaren arlotik ikerketa biomedikoari egiten dizkion planteamendu original eta aitzindariak ekarpen handia egiten ari zaizkie gizartean eragin handia duten arazo mediko konplexu askori, baina baita zientziaren aurrerapenari ere, oro har”, nabarmendu du Sacristánek.

Liz Marzán, ezagutzaren muga aritzen den zientzialaria

Liz Marzánek eta haren taldeak ([BioNanoPlasmonics Lab](#)) zuntz amiloideen —parkinsonaren eta beste hainbat neuroendekapenezko gaitzen sortzaileak— sorrera detektatzeko sistema bat garatu dute, kiralitate plasmonikoaren fenomenoan oinarrituta —argiak modu berezi batean interakzionatzen duen fenomeno—, eta terapia fototermikoari nanotermometro fotolumineszenteak sartu dizkiote, laser bidezko berokuntza kontrolatzeko. Gaur egun, minbiziaren ikerketa dute ardatz, eta 3Dko tumore-erakuntzetan nanosentsoreak sartzen dituzte, tumoreak hainbat kondiziotan nola jokutzen duen ulertzen lagunduko dieten biomarkatzaileak identifikatzeko.

“Nire ikerketen helburua da konpontzea lortuz gero onura sozial handia eragingo luketen arazo biomediko konplexu batzuei irtenbidea ematea”, dio Liz Marzánek. Izan ere, adierazi duenez, “zientzialaririk onena ez da erantzunik onena aurkitzen duena, galdera onena egiten duena baizik, eta horixe egiten saiatu gara beti ikerketa-taldean lanean aritu izan diren pertsona guztiekin, galdera interesgarrienak egiten eta ezagutzaren muga horretaraino iristen, horixe baita abangoardiako ikerketa definitzen duen gakoa”.

Liz Marzánek bereziki eskertzen du Lilly Fundazioak biomedikuntzako ikerketarekin lotuta ematen dion saria; izan ere, “oso erronka garrantzitsua da niretzat nanomaterialek biomedikuntzaren alorrean dituzten aplikazioak bilatzea. Vigoko Unibertsitatean abiarazi nuen erronka hori, baina funtsean CIC biomaGUNE garatu dut, non inguruneak eta lan-giroak benetan bultzatzen baitute mailarik goreneko ikerketa egitea. Beraz, sentitzen dut sari honek ez duela bakarrik nire lan zientifikoa saritzen, baizik eta biomedikuntzako bikaintasunezko ikerketa-zentro gisa berresten duela CIC biomaGUNE. Lortu ditugun arrakastak talde-lanari esker lortu ditugu, funtsean; talentu handiko gazte askok hartu dute parte nire taldean, eta beste erakunde batzuetako adituekin ere lankidetzan aritzen gara etengabe”.

Luis Liz Marzáni buruz

Luis Liz Marzán, kimikan doktore, Koloideen Zientzian espezializatu zen. Nanozientzia eta nanomedikuntza izan ditu ardatz haren ikerketak, eta, zehazki, propietate plasmonikoak dituzten nanopartikula metalikoetan eta eremu biomedikoan dituzten aplikazioetan jarri du arreta. Gaur egun, bere belaunaldiko zientzialari entzutetsuenetako bat da, bere alorrean ekarpen garrantzitsu asko egin baititu. Nazioartean eragina duten aldizkarietan 500 lan baino gehiago argitaratu ditu, bederatzi patenteren asmatzaileetako bat da, eta lau libururen editore. Bere argitalpenek eragin handia izan dutenez, *ISI Highly Cited Researcher* izendatu dute zazpi urtez jarraian (2014-2020). Liz Marzánen lanek 50.000 aipamen baino gehiago izan dituzte; 120 inguruko H indizea lortu du (WOS datuak), eta 90 argitalpen baino gehiago sailkatu ditu *Essential Science Indicators*-ek *highly cited papers* gisa (alegia, asko aipatzen diren artikuluko zientifiko gisa).

Liz Marzánek Santiagoko Unibertsitatean abiarazi zuen bere ibilbidea, eta, doktoratu ostean Utrechteko Unibertsitatean bi urte ikertzen eman ondoren, Vigoko Unibertsitatean hasi zen lanean, 1995ean. 2012tik, CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendaria da, eta Bionanoplasmonikako Laborategia zuzentzen du. Ikerbasque irakaslea da. Halaber, Bioingeniaritzako, Biomaterialetako eta Nanomedikuntzako Sareko Ikerketa Biomedikoaren Zentroko (CIBER-BBN) nodo bat zuzentzen du.

ERC Advanced Grants entzutetsuak bi aldiz segidan eskuratu dituen Europako ikertzaile gutxietako bat da (2012-2017; 2018-2023). Biak nanomaterialen aplikazio biomedikoekin lotuta

daude. Gainera, hainbat argitalpen-batzordetako kide da (*Scienceko Board of Reviewing Editors* gisa aritzen den espainiar bakarra da) eta *American Chemical Society*-ren zenbait aldizkariren editore izan da. Liz Marzán irakaslea *Royal Society of Chemistry*ko (Erresuma Batua) eta *Optical Society of America*ko (AEB) kide da (*Fellow*). Espainiako Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako kide hautatua da, eta Galiziako eta Granadako zientzia-akademietako eta *European Academy of Sciences*eko urgazle. Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, *Humboldt Research Award*, Espainiako Kimikako Errege Akademiaren domina, *Blaise Pascal Medal in Materials Science*, Jaime I Erregearen Saria, *European Colloid and Interface Society*ko *Rhodia Prize* eta Kimika Zientzia eta Teknologia Enrike Moles Sari Nazionala.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.

Lilly Fundazioari buruz

Lilly Fundazioak 20. urteurrena ospatzen du aurten, eta helburu hauek ditu: Espainiako osasungintza garatzen laguntzea, herritarren osasunaren mesedetan; ZIENTZIA eta ikerketa sustatzea, eta gizartean kultura eta zientzia-dibulgazioa sustatzea; MEDIKUNTZA garatzen laguntzea, ezagutza biomedikoa sortuz, ezagutza hori zabalduz, profesionalak trebatuz eta osasun-hezkuntza sustatuz; eta HUMANISMOAREN oinarriko balioak sustatzea osasungintzaren arloan.